Osteko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Edonola ere, urtebete baino lehen jasotzea espero diren kontu-sailak balio nominalaren arabera balioztatzen dira.

Kobratzeko kontu-sailen balioa narriatzeagatiko galerak kalkulatzeko, balioetsitako etorkizuneko eskudiru-fluxuak hartzen dira aintzat, aintzatespena egitean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta lehengoratzea gastu edo sarreratzat hartzen dira galdu-irabazien kontuan.

d) Finantza-inbertsioen zorroa

Finantza-inbertsioen zorroko aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan kategorian sartzen dira. Zorroko finantza-produktu nagusiak eta horien arrazoizko balioaren zehaztapena jasoko ditugu jarraian:

- Zorra adierazten duten baloreak. Jaulkitzailearentzat zorra eragiten duten baloreak dira, eta sortzen duten interesa kontratu bidez finkatzen da.

Kotizatutako zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioa merkatu bateko kotizazio-prezioetan oinarrituz zehazten da, baldin eta merkatu hori aktiboa bada eta prezioak modu tinkoan lortzen badira. Kotizazio-preziorik ez dagoenean, arrazoizko balioa transakzioaren prezio berrienarekin dator bat, baldin eta transakzioaren unetik baldintza ekonomikoetan ez bada aldaketa handirik gertatu.

Zor-tresnarako merkatu aktiborik ez badago, balioztapen-teknika hauek erabiltzen dira: bitartekariak, jaulkitzaileek edo informazio-hedatzaileek emandako prezioak; alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentzia eta behar bezala informatuta egindako merkatuko oraintsuko transakzioak (eskuragarri badaude); funtsean bera den beste tresna baten egungo arrazoizko balioa; edo, dagokionean, fluxuen deskontu-ereduak eta aukeren balioztapenak.

Kobratu ez diren eta zorra adierazten duten baloreek sortutako interesak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatu eta ekitaldiko emaitzen artean sartzen dira.

- Ondare-tresnak. Beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak (akzioak eta partaidetza-kuotak, adibidez), jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

Kotizatutako ondare-tresnen arrazoizko balioa balantze-eguneko edo, bestela, aurreko laneguneko itxierako kanbio ofizialak finkatzen du, eta, itxierako prezio ofizialik ez badago, haztatutako batez besteko kanbioak.

- Kreditu-erakundeetako gordailuak. Fondoak kreditu-erakundeetan dituen gordailuak, «Altxortegia» epigrafean jasotako saldoak salbu.

Inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean merkatuan indarrean dauden tasekin parekatzen duen zenbatekoa hartzen da arrazoizko balioztatzat.

- Erreferentziazko eguneko likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da horien arrazoizko balioa. Erreferentziazko egunerako ez bada

likidazio-baliorik kalkulatu, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiliko da. Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan inbertitzeko, behar denean, estimatutako likidazio-balioak erabiltzen dira.

- Deribatuak. Barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forwarden kontratuetako balio-aldeak, erositako edo jaulkitako warrant eta aukerengatik kobratutako nahiz ordaindutako hobariak, finantza-trukeko kontratuei lotutako kobrantza edo ordainketak eta egituratutako produktu etako inbertsioak.

Itxierako kanbio ofizialak erreferentziazko egunean duen balioak zehazten du bere arrazoizko balioa. Antolatutako merkatuetan negoziatu ez diren entzat, CNMVren 6/2010 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako baldintzen arabera balioztapen-eredua ezartzen du Sozietate Gestoreak.

Inbertsioa nabarmen eta konpontzeko modurik gabe narriatzen zaizkien aktiboetara baja emango zaie, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Finantza-aktibo eta -pasiboetara horien jabeagoak berezkoak dituen arrisku eta onura guztiak inbertitzen direnean ematen zaie baja balantzean.

e) Aktiboaren aldi baterako eskurapena eta lagapena

Aktiboaren aldi baterako eskurapenak edo osterara lagatzeko itundun eskurapenak despoltsatutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, dagokien aktiboaren kontuan, azpian dituzten tresnak edozein direlarik ere.

Kopuru horren eta osterara-lagapenaren prezioaren arteko aldea galdu-irabazien kontuan egotzen da sarrera moduan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Arrazoizko balioen arteko aldeak galdu-irabazien kontuko «Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza» epigrafean egotzen dira.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa «galdu-irabazietan aldaketak dituen finantza-pasiboaren arrazoizko balioan» kategorian erregistratzen da.

f) Ondare-tresnak

Ondare-tresna kotizatuak kontratatzen direnean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egotzekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Ondare-tresnak» epigrafea erabiltzen da.

g) Zorra adierazten duten baloreak

Zorra adierazten duten baloreak likidatzean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafea erabiltzen da.

h) Deribatuetako eragiketak, finantza-trukeak kanpo utzita

Deribatuetako eragiketak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte. Konprometitu den zenbatekoa idazten da.

Berme gisa gordailututako fondoak, lagatako gordailu gisa hartzen dira kontabilitatean, eta balantzeko aktiboko «Zordunak» epigrafean dagokien atalean erregistratzen dira.

Bermetan emandako baloreen arrazoizko balioa oroipen-kontuetan erregistratzen da, «Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak» epigrafean.

Erositako edo jaulkitako aukeren ondoriozko primak balantzeko aktiboko edo pasiboko «Deribatuak» epigrafean jasotzen dira, eragiketa egin zen datarekin.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Deribatuetako eragiketen emaitzak» edo «Deribatuetako eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, aldakuntzak likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida

moduan, balantzeko aktiboko edo pasibo korronteko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» epigrafea erabiltzen da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Fondoak deribatuetak eragiketak ditu zorroan.

i) Konpromiso-kontuak

CNMVren 2010eko abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen tresna deribatuekiko eragiketei buruzkoak, ezartzen duenari jarraikiz, Sozietateak ez badu deskonposizioa egin erreferentziatzat hartzen dituen esposizioen arabera inbertsioak egiten dituen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan (Zirkular horren 6.5 Aruan ezarritakoaren arabera), gainerakoetatik aparteko azpiko edo arrisku-faktore gisa hartu behar ditu posizio horiek. Horregatik, Sozietateak besteak beste «Konpromiso-kontuak» epigrafean sartzen ditu posizio horiek, betiere Sozietateak horren inguruko informazioirik badu.

j) Atzerri-dirua

Altxortegiari, zordunketei edo kredituei dagozkien diruzko partidetarako, kanbio-aldeak, positiboak zein negatiboak, «Kanbio-aldeak» epigrafean aintzatesten dira galdu-irabazien kontuan.

Finantza-tresnen zorroa osatzen duten eta diruzkoak diren eta ez diren gainerako kontu-sailetan, kanbio-aldeak balioztapenaren ondoriozko galdu-irabaziek in batera hartzen dira.

k) Partaidetzen likidazio-balioa

Fondoa osatzen duten partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko, haren ondarea zehazten da, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren 2008ko azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako irizpideak erabiliz.

l) Harpidetzak eta itzultzeak

Partaidetzen harpidetzak edo itzultzeak benetan harpidetu edo itzultitako kopuruarekin kontabilizatzen dira, eta Fondoaren balantzeko pasiboko «Partaideak» atalean ordaindu edo zordundu, kasuan kasukoa.

Fondoaren Gestio Erregelamenduari jarraikiz, interesdunak eskaera egin duen eguneko likidazio-balioarena izango da partaidetzen prezioa, eta horrela finkatuko dira bai harpidetu nahiz itzultitako partaidetzen kopurua, bai dagokionean itzuli beharreko eskudirua.

m) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua galdu-irabazien kontuan adierazten da, eta zenbatekoa kalkulatzekoan zerga-oinarriaren eta geroagoko epealdietan eragina izango duen zerga aplikatu aurreko kontabilitate-emaizaren arteko aldeak hartzen dira kontuan.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak beti aintzatesten dira; zerga geroratuen aktiboak, berriz, erakundeak etorkizunean irabazi fiskalak izateko eta, ondorioz, aktibook aplikatzeko aukerak daudenean soilik.

Galera fiskalen ondorioz hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideek ez dakarte berekin, inolaz ere, aktibo bat geroratutako zergaren arabera aintzatestea, eta gastua likidazio-balioaren kalkuluaren maiztasunez zergaren arabera konpentsatuz aintzatesten dira soilik. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak «Oroipen-kontuak – Konpentsatzeko galera fiskalak» epigrafean eregistratzen dira.

4. ZORDUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

	2019	2018
Berme-gordailuak	232 635,65	105 553,50
Administrazio publikoak zordun	12 033,98	4 131,58
Likidatzeko dauden eragiketak	14 309,41	1 556,44
Beste batzuk	-	140,70
	<u>258 979,04</u>	<u>111 382,22</u>

«Zordunak – Berme-gordailuak» atalaren barruan, ekitaldiak amaitzean indarrean dauden finantza-geroko bizien posizioen berme gisa eurotan eraturako gordailuen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko balioa dago jasota.

Interesen eta kapital higigarriko beste errendimendu batzuen gainean egindako atxikipean jasotzen ditu 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak zordun» atalak.

Bestalde, 2019ko abenduaren 31ko «Zordunak – Likidatzeko dauden eragiketak» atalean, ekitaldi horretako azken egunetan likidatzeko zeuden 14.309,41 euroko

baloreak saltzeko eragiketak zeuden, batez ere, jasota. 2018ko abenduaren 31ko «Zordunak – Likidatzeko dauden eragiketak» atalean, ekitaldi horretako azken egunetan likidatzeko zeuden dibidenduen zenbatekoa (1.498,84 eurokoa) zegoen jasota. Eragiketa horiek 2020ko eta 2019ko urtarrileko lehen egunetan likidatu dira.

5. HARTZEKODUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

	2019	2018
Administrazio publikoak hartzekodun	4 625,34	-
Beste batzuk	<u>97 533,93</u>	<u>27 363,03</u>
	<u>102 159,27</u>	<u>27 363,03</u>

2019ko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak hartzekodun» atalak ekitaldian sortutako mozkinen gaineko zerga biltzen du.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Hartzekodunak – Beste batzuk» atalean, kasuan kasuko ekitaldia ixtean ordaintzeko dauden gestio- eta gordailuzaintza-komisioen zenbatekoa jaso da, batez ere.

2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Fondoak ez du lege ezarritakotik gorako geroraterik duen ordainketarik egin. Era berean, 2019ko eta 2018ko ekitaldiak ixtean, Fondoak ez du lege ezarritako epea gaingiditzen duen geroratzedun saldirik ordaintzeko.

6. FINANTZA-INBERTSIOEN ZORROA

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, hauxe da Fondoaren balore-zorroa, aktibomotaren arabera:

	2019	2018
Barruko zorroa	<u>17 468 947,11</u>	<u>9 205 683,72</u>
Zorra adierazten duten baloreak	17 468 947,11	9 205 246,92
Deribatuak	-	436,80

	2019	2018
Kanpoko zorroa	13 744 674,14	5 545 261,80
Zorra adierazten duten baloreak	3 747 134,62	1 271 374,72
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	9 997 539,52	4 265 262,57
Deribatuak	-	8 624,51
Inbertsio-zorroko interesak	47 479,40	26 403,07
	31 261 100,65	14 777 348,59

Txosten honekin batera doazen I. eta II. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatueta egindako inbertsioek 2019ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da. Txosten honekin batera doazen III. eta IV. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatueta egindako inbertsioek 2018ko abenduaren 31n zuten osaera zehaztu da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, finantza-inbertsioen zorroko titulu guztiak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Banco Inversis SAn daude gordailututa.

7. ALTXORTEGIA

Honako hau da epigrafe horren osaera 2019ko eta 2018ko ekitaldien amaieran:

	2019	2018
Erakunde Gordailuzaineko kontuak	357 586,31	760 011,78
Altxortegiko beste kontu batzuk	174 774,37	43 087,88
	532 360,68	803 099,66

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Gordailuzaineko kontuak» atalean, Fondoak Gordailuzainean dituen kontu korranteetako saldoa dago jasota. Kontu korrante horiek % 0ko interes-tasa jaso dute 2 ekitaldietan.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Altxortegiko beste kontu batzuk» atalak hurrenez hurren Cecabank SAko kontu korranteetako saldoa biltzen du, batik bat. Horren bidez, deribatuekiko eragiketak egiten dira.

8. PARTAIDEEI ESLEITUTAKO ONDAREA

Fondoaren partaidetza guztiak balio nominalik gabeko izendun ziurtagiri bidez daude ordezkaturak, eta horiek ondarearen gaineko jabetza-eskubidea ematen diete jabeei.

Partaidetza bakoitzaren 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko likidazio-balioa honela lortu da:

	2019	2018
Partaideei esleitutako ondarea	<u>31 949 417,37</u>	<u>15 664 467,44</u>
Jaulkitako partaidetza-kopurua	<u>5 278 936,88</u>	<u>2 728 442,33</u>
Partaidetzaren likidazio-balioa	<u>6,05</u>	<u>5,74</u>
Partaide-kopurua	<u>2 621</u>	<u>1 295</u>

Partaideei esleitutako ondareak 2019ko eta 2018ko ekitaldietan izandako mugimendua «Ondare garbiaren aldaketan egoera-orria» atalean jaso da.

Ekitaldiko emaitza, mozkinen gaineko zerga aintzat hartu ostean, Fondoko «Partaideak» kontuan banatuko da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, ez dago % 20tik gorako partaidetza duen partaiderik. Hortaz, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen 1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikulua araberak, ez dago partaidetza nabarmenik.

9. KONPROMISO-KONTUAK

Txosten honekin batera doazen II. eta IV. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da.

10. BESTE OROIPEN-KONTU BATZUK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

	2019	2018
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	50 992,13	12 780,33
Beste batzuk	<u>18 877 472,27</u>	<u>9 327 968,80</u>
	<u>18 928 464,40</u>	<u>9 340 749,13</u>

11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA EGOERA FISKALA

2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautu du Fondoaren erregimen fiskala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1996ko uztailearen 4ko 7/1996 Foru Araua, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, eta ondorengo aldakuntzak indargabetu zituenetik. 2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Fondoak 100eko leko karga-tasa izan du sozietateen gaineko zergan, betiere 35/2003 Legearen bosgarren eta bederatzigarren artikuluetan eta ondorengo aldakuntzetan adierazten diren partaideak baditu gutxienez.

Gainera, 2/2014 Foru Arauaren aldakuntza horiek direla eta, 2018ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak diren eta aurreko ekitaldietatik datozen zerga-oinarri negatiboan, likidatu edo autolikidatu direnen, konpentsazioa, konpentsazio hori egin aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50ekoa izango da, gehienez. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau horren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 50.992,13 eta 12.780,33 eurokoak dira konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboan zenbatekoak.

2019ko ekitaldian, berriz, zerga aurreko kontabilitate-emaiztaren eta sozietateen gaineko zerga-oinarriaren arteko aldea bat dator Fondo xurgatuak aurreko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboan konpentsazioarekin.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Fondoari dagozkion zergak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epaia iragan arte.

Fondoak ikuskatzeko prest ditu eratu zenetik dagozkion zerga guztiak.

Ez dago agintari fiskalen ikuskaritzaren ondorioz gorabehera nabarmenik sortzeko arriskurik.

12. BESTELAKO INFORMAZIOA

Sozietate Gestoreak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan aurreikusitako eragiketa lotetsiak egiten ditu Fondoaren kontura. Horretarako, Sozietate Gestoreak zenbait prozedura ezarri ditu, interes-gatazkak saihesteko eta lotutako eragiketak Fondoaren mesedetan eta merkatu-prezioetan egiten direla bermatzeko. Aldian behin egin beharreko txostenetan, egindako eragiketa lotetsien informazioa txertatzen da, CNMVren 4/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan araututakoari men eginez. Gainera, Sozietate Gestorearekin edo horri lotutako beste pertsona nahiz erakunde batzuekin Fondoaren kontura egindako eragiketa lotetsiak ere jasotzen ditu, eta horien izaeraren, arriskuen eta zereginen berri ematen du.

Beste alde batetik, «Jarduera eta arriskuaren gestioa» izeneko oharrean, Sozietate Gestorearen Taldekoak diren erakundeek gestionatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera-lagatako komisioen zenbatekoa jasotzen da, baldin eta ekitaldian sortutakoak badira.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, «Altxortegia» oharrean Fondoak Gordailuzainarekin dituen kontuen berri ematen da, eta, I. eta III. eranskinetan, hurrenez hurren 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n Gordailuzainarekin egindako aktiboen aldi baterako eskurapenak jasotzen dira.

Erakundeak ez duenez ez langilerik ez bulegorik, eta bere izaera kontuan hartuta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak Gestionatzeko Sozietate batek gestionatu behar duenez, Sozietate Gestoreari bakarrik aplikatzen zaizkio ingurumena babesteari eta langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeari buruzko gaiak.

PricewaterhouseCoopers Auditores SLk 3na mila euroko zerbitzu-sariak jaso ditu 2019ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuen auditoretza egiteagatik. Ekitaldi horietan, sozietate ikuskatzaileak edo horri atxikitako enpresek ez dute kontu-ikuskaritzaz bestelako zerbitzurik eman.

13. OSTEKO EGITATEAK

2019ko abenduaz geroztik, COVID-19a, koronabirusaren andui berria, hedatu da Txinatik beste herrialde batzuetara (Espainia tartean dela). Gertaera horrek mundu osoko ekonomiari eragin dio, eta, ondorioz, baita Fondoaren eragiketei eta finantza-emaitzei ere. Fidagarritasunez auresan ezin diren etorkizuneko esku-hartzeen mende dago koronabirusak gure emaitzetan izango duen eragina, besteak beste, gaixotasuna kontrolatzeko eta tratatzeko ekintzen eta ukitu dituen herrialdeetako ekonomietako inpaktua arintzearen egingo diren jardueren mende.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaz gain, ekitaldia itxi ostean ez da gertatu Fondoaren urteko kontu haueetan eragin nabarmena izan dezakeen inolako gertaerarik.

I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Barruko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) / Gainbalioa
Zor publikoa					
BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,95 2026-04-30	EUR	1 006 269,50	11 128,94	1 005 307,01	(962,49)
BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 0,60 2029-10-31	EUR	1 783 981,10	1 071,07	1 764 054,53	(19 926,57)
BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,85 2035-07-30	EUR	686 195,40	2 333,20	689 049,29	2 853,89
BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,40 2028-04-30	EUR	2 443 731,50	15 045,21	2 400 536,28	(43 195,22)
Zor publikoa GUZTIRA		5 920 177,50	29 578,42	5 858 947,11	(61 230,39)
Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin					
REPOA, LABORAL KUTXA 2020-01-02	EUR	11 610 000,00	-	11 610 000,00	-
Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA		11 610 000,00	-	11 610 000,00	-
Barruko zorroa GUZTIRA		17 530 177,50	29 578,42	17 468 947,11	(61 230,39)

I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) / Gainbalioa
Zor publikoa					
BONUA, ESTATU BATUAK % 2,50 2020-12-31	USD	452 584,52	(579,17)	450 231,48	(2 353,04)
BONUA, ESTATU BATUAK % 2,25 2027-02-15	USD	339 768,29	4 230,65	365 353,46	25 585,17
BONUA, ITALIAKO ERREPUBLIKA % 4,75 2028-09-01	EUR	1 223 976,30	4 717,37	1 290 568,77	66 592,47
BONUA, ESTATU BATUAK % 2,75 2042-11-15	USD	97 434,49	280,07	95 281,38	(2 153,11)
BONUA, ESTATU BATUAK % 2,13 2022-12-31	USD	811 591,76	925,86	822 575,16	10 983,40
BONUA, ITALIAKO ERREPUBLIKA % 4,00 2037-02-01	EUR	735 324,80	8 326,20	723 124,37	(12 200,43)
Zor publikoa GUZTIRA		3 660 680,16	17 900,98	3 747 134,62	86 454,46
Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak					
PARTAIDETZAK, NOMURA	EUR	592 413,47	-	607 634,82	15 221,35
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	117 596,16	-	123 381,10	5 784,94
PARTAIDETZAK, INVECO PANEU STR EQ	EUR	499 295,94	-	529 890,12	30 594,18
PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT	EUR	499 782,63	-	529 469,51	29 686,88

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balloztapena	Interesak	Arrazoi-zko balloia	(Minusbailioa) / Gainbalioa
PARTAIDETZAK, ISHARE CORE CB UCITS	EUR	2 718 005,26	-	2 767 246,20	49 240,94
PARTAIDETZAK, INVESCO GLOBSTR E	EUR	808 631,43	-	903 615,50	94 984,07
PARTAIDETZAK, DEUTSCHE BANK	EUR	513 759,98	-	567 528,00	53 768,02
PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS	EUR	859 999,85	-	897 316,02	37 316,17
PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500	EUR	68 866,81	-	79 467,50	10 600,69
PARTAIDETZAK, S&P ETF EUR	EUR	428 694,73	-	455 810,32	27 115,59
PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ	EUR	351 976,76	-	375 558,56	23 581,80
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	1 645 398,43	-	1 629 820,40	(15 578,03)
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	48 890,02	-	52 260,41	3 370,39
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	104 256,27	-	101 931,65	(2 324,62)
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	47 645,02	-	50 928,71	3 283,69
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	94 450,63	-	96 407,50	1 956,87
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	94 342,77	-	97 648,20	3 305,43
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	116 945,32	-	131 625,00	14 679,68
Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA		9 610 951,48	-	9 997 539,52	386 588,04
Kanpoko zorroa GUZTIRA		13 271 631,64	17 900,98	13 744 674,14	473 042,50

II. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Azalpena	Dibisa	Nominal konprometitua	Arrazoizko balioa	Kontratuaren muga-eguna
Eskura ordaindutako erosketak				
Erositako geroakoak				
GEROKOA, B.US3602 1 2020-02-28	USD	142 445,62	138 991,04	28/02/2020
GEROKOA, B.US2112 1 2020-02-28	USD	768 838,62	768 476,41	28/02/2020
GEROKOA, B.US2405 1 2020-02-28	USD	531 036,86	528 703,66	28/02/2020
GEROKOA, B.US2611 1 2020-02-28	USD	3 584 249,85	3 549 147,08	28/02/2020
GEROKOA, EURO STOXX 50 10 2020-03-20	EUR	1 869 940,00	1 864 500,00	20/03/2020
GEROKOA, S&P 500 1 2020-03-20	EUR	1 003 617,27	1 008 188,46	20/03/2020
Erositako geroakoak GUZTIRA		7 900 128,22	7 858 006,65	
Beste erosketa-konpromiso batzuk				
PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS EUR	EUR	897 316,02	897 316,02	-
PARTAIDETZAK, INVECO PANEU STR EQ	EUR	529 890,12	529 890,12	-
PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT	EUR	529 469,51	529 469,51	-
PARTAIDETZAK, INVECO GLOBSTR E	EUR	903 615,50	903 615,50	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	131 625,00	131 625,00	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500	EUR	79 467,50	79 467,50	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	123 381,10	123 381,10	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	101 931,65	101 931,65	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	50 928,71	50 928,71	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	96 407,50	96 407,50	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	97 648,20	97 648,20	-
Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA		3 541 680,81	3 541 680,81	
Eskura ordaindutako salmentak				
Salgutako geroakoak				
GEROKOA, BTPS 2812 1 2020-03-06	EUR	1 282 410,00	1 282 140,00	06/03/2020
GEROKOA, B.DBR4407 1 2020-03-06	EUR	410 120,00	396 760,00	06/03/2020
GEROKOA, B.DBR2902 1 2020-03-06	EUR	3 455 800,00	3 409 800,00	06/03/2020
GEROKOA, SXXP 1 2020-03-20	EUR	206 160,00	206 900,00	20/03/2020
GEROKOA, MSCIEUTR 100 1 2020-03-20	EUR	194 544,00	195 160,00	20/03/2020
Salgutako geroakoak GUZTIRA		5 549 034,00	5 490 760,00	
GUZTIRA		16 990 843,03	16 890 447,46	

III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Barruko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) / Gainbalioa
Zor publikoa					
BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,40 2028-04-30	EUR	1.196.538,00	11.609,79	1.205.246,92	8.708,92
Zor publikoa GUZTIRA		1.196.538,00	11.609,79	1.205.246,92	8.708,92
Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin					
REPOA, LABORAL KUTXA 2019-01-02	EUR	8.000.000,00	-	8.000.000,00	-
Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA		8.000.000,00	-	8.000.000,00	-
Barruko zorroa GUZTIRA		9.196.538,00	11.609,79	9.205.246,92	8.708,92

III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) / Gainbalioa
Zor publikoa					
BONUA, ESTATU BATUAK % 1,50 2019-10-31	USD	326.796,29	2.938,30	343.895,07	17.098,78
BONUA, ITALIAKO ERREPUBLIKA % 4,75 2028-09-01	EUR	673.654,50	9.049,93	673.654,50	-
BONUA, ESTATU BATUAK % 2,25 2027-02-15	USD	245.640,58	2.805,05	253.825,15	8.184,57
Zor publikoa GUZTIRA		1.246.091,37	14.793,28	1.271.374,72	25.283,35
Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak					
PARTAIDETZAK, INVECO GLOBSTR E	EUR	218.990,89	-	196.473,50	(22.517,39)
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCIEMER	EUR	167.348,95	-	159.299,40	(8.049,55)
PARTAIDETZAK, ISHARES EUR HY COR B	EUR	419.888,46	-	398.140,27	(21.748,19)
PARTAIDETZAK, S&P ETF EUR	EUR	438.423,49	-	415.454,00	(22.969,49)
PARTAIDETZAK, INVECO PANEU STR EQ	EUR	558.894,42	-	479.435,00	(79.459,42)
PARTAIDETZAK, IJXX-NIKKEI400 UCITS	EUR	77.264,27	-	64.625,00	(12.639,27)
PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500	EUR	66.501,68	-	63.310,00	(3.191,68)
PARTAIDETZAK, ISHARE CORE CB UCITS	EUR	1.260.009,94	-	1.251.871,25	(8.138,69)
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	34.200,26	-	32.645,00	(1.555,26)
PARTAIDETZAK, DEUTSCHE BANK	EUR	528.870,57	-	449.085,00	(79.785,57)
PARTAIDETZAK, BNY MELLON GLOBAL DY	EUR	109.000,00	-	83.486,77	(25.513,23)
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	93.607,37	-	84.732,00	(8.875,37)
PARTAIDETZAK, NOMURA	EUR	175.482,92	-	157.524,75	(17.958,17)
PARTAIDETZAK, S&P ETF EUR	EUR	100.147,26	-	99.919,44	(227,82)
PARTAIDETZAK, INVECO PANEU STR EQ	EUR	100.090,94	-	100.523,12	432,18
PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT	EUR	257.787,27	-	228.738,07	(29.049,20)
Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA		4.606.508,69	-	4.265.262,57	(341.246,12)
Kanpoko zorroa GUZTIRA		5.852.600,06	14.793,28	5.536.637,29	(315.962,77)

IV. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Azalpena	Dibisa	Nominal konprometitua	Arrazoizko balioa	Kontratuaren muga-eguna
Eskura ordaindutako erosketak				
Erositako geroakoak				
GEROKOA, B.US2012A 1 2019-02-28	USD	184 028,09	185 296,30	28/02/2019
GEROKOA, B.US2305 1 2019-02-28	USD	689 249,58	700 656,75	28/02/2019
GEROKOA, B.US2509 1 2019-02-28	USD	1 891 525,60	1 916 810,39	28/02/2019
GEROKOA, IBEX35 1 2019-01-18	EUR	61 166,00	59 619,70	18/01/2019
GEROKOA, S&P 500 1 2019-03-15	EUR	111 507,03	109 321,00	15/03/2019
GEROKOA, EURO STOXX 50 10 2019-03-15	EUR	544 850,00	535 320,00	15/03/2019
		3 482 326,30	3 507 024,14	
Erositako geroakoak GUZTIRA				
«Put» aukeren jaulkipena				
Beste erosketa-konpromiso batzuk				
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCI EMER	EUR	159 299,40	159 299,40	-
PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ	EUR	479 435,00	479 435,00	-
PARTAIDETZAK, IJPX-NIKKEI400 UCITS	EUR	64 625,00	64 625,00	-
PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT	EUR	228 738,07	228 738,07	-
PARTAIDETZAK, INVESCO GLOBSTR E	EUR	196 473,50	196 473,50	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	84 732,00	84 732,00	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500	EUR	63 310,00	63 310,00	-
PARTAIDETZAK, S&P ETF EUR	EUR	99 919,44	99 919,44	-
PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ	EUR	100 523,12	100 523,12	-
		1 477 055,53	1 477 055,53	
Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA				
Saldutako geroakoak				
GEROKOA, B.DBR2802 1 2019-03-07	EUR	2 448 670,00	2 453 100,00	07/03/2019
		2 448 670,00	2 453 100,00	
Saldutako geroakoak GUZTIRA				
		7 408 051,83	7 437 179,67	

Caja Laboral Gestion SGIC SArean administratzaileak 2020ko apirilaren 22an bildu dira, eta, indarrean dagoen legedia betez, Laboral Kutxa Aktibo Eki Inbertsio Fondoaren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena (2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak) egin dituzte. Kontu eta txosten horietan, idazki honen aurreko dokumentuak sartzen dira, alegia, honako hauek:

- a) 2019ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua eta 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.
- b) Urteko kontuen txostena, 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoak.
- c) Kudeaketa-txostena, 2019ko ekitaldikoak.

SINATZAILEAK:

44971239Y JOSE Firmado digitalmente por
CARLOS MAZA 44971239Y JOSE CARLOS
(R: F20040804) MAZA (R: F20040804)
Fecha: 2020.04.22
09:54:24 +02'00'

D. José Carlos Maza
Lehendakaria

D^a. Maria Carmen Urrutia
Kidea

D. Beñat Herce Leceta
Kidea

22748686F AITOR Firmado digitalmente por
GARCIA (R: 22748686F AITOR GARCIA (R:
A20433421) A20433421)
Fecha: 2020.04.22 11:43:01
+02'00'

D. Aitor García
Idazkaria

DILIGENCIA

Que extiende el Secretario (Consejero) del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal). para hacer constar que:

- Las Cuentas Anuales de Laboral Kutxa Aktibo Eki, F.I., correspondientes al ejercicio 2019, y el Informe de Gestión del ejercicio 2019, con vistas a su verificación por los auditores y posterior aprobación por la Junta General de Accionistas, han quedado debidamente formuladas mediante acuerdo adoptado, por unanimidad, en la reunión del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal) celebrada mediante videoconferencia (de conformidad con la posibilidad prevista en el apartado 1 del artículo 40 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo) en fecha 22 de Abril de 2020; y que,
- En atención a las actuales circunstancias de extraordinaria excepcionalidad, las Cuentas Anuales de Laboral Kutxa Aktibo Eki, F.I., correspondientes al ejercicio 2019, y el Informe de Gestión del ejercicio 2019 han sido firmadas, únicamente, por el Presidente del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal), Don José Carlos Maza Guzmán y el Secretario (Consejero) Don Aitor García Santamaría, en señal de la aceptación y conformidad del resto de Consejeros respecto a las referidas Cuentas Anuales, quienes, a su vez, han consentido el citado procedimiento de firma y han votado en dicho Consejo de Administración celebrado en fecha 22 de Abril de 2020 a favor de la formulación de las cuentas y el informe de gestión del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2019.

Mondragón, 22 de abril de 2020

22748686F

AITOR

GARCIA (R:

A20433421)

Firmado digitalmente
por 22748686F AITOR

GARCIA (R:

A20433421)

Fecha: 2020.04.22

11:03:09 +02'00'

D. Aitor García Santamaría

Secretario (Consejero)

**Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.
(Sociedad Unipersonal)**



LABORAL
kutxa